



# Neil MacCormick-en Okerrik egin al dezakete epaileek?

BENGOETXEA CABALLERO, Joxerramon\*

MacCormick gero eta ezagunagoa bilakatzen ari da gure artean. Hasiera batean, eta 1978. urtean bere *Legal Reasoning and Legal Theory* liburua argitaratu zuenetik, Zuzenbidearen teoria analitikoan murgiltzen zirenek bakarrik ezagutzen zuten; hori bai, mundu mailan. Ongi oroitzen naiz 1986. urtean tesia Edinburgoko Unibertsitatean bere zuzendaritzapean egitera joan nintzenean, poliki-poliki bere izena politikaren filosofoen eta konstituzionalisten artean ezagutzen hasi zela, *Legal Right and Social Democracy* liburua argitaratu berri zelako. Azken urteotan, bere europarlamentari postuagatik, *Scottish National Party*-ren baitan hartu duen lidergo ideologikoagatik, Eusko Legebiltzarrean zein Europar Batzordean izandako ekarpenengatik eta handik gutxira gure prentsa euskaltzalean izandako oihartzunagatik ezaguna eta ospetsu egin da gure artean. Pertsonalki, nahiko zaila egiten zait hainbeste miresten dudan pertsonari buruz laburpen txiki bat egitea, eta **Eleri**arako bere testu anitzetako bat aukeratu behar izan dudanean egokiena hautatzea ez da eginkizun samurra izan.

**Eleri**ako Klasikoetarako aukeratu dugun testu honek oso galdera garrantzitsua egiten du, galdera horri oso modu interesgarrian erantzuten saiatuz. Sarrera honetan, autoreak galdera edo gaiaren tratamenduari ekiteko hartu duen planteamendua aztertu eta komentatuko dugu, eta, bide batez, planteamendu hau autorearen ibilera teorikoan kokatzen saiatuko gara, azken urrats batean ideia hauen gaur egungo panorama teorikoaren testuinguruan jarritz.

Testua Gunther Ellscheid Saarbrücken-go Zuzenbide irakasle, Zuzenbide naturaleko pentsalari kritiko eta epaile denaren omenezko liburuan dago argitaratuta, eta MacCormickek bere omenez eman zuen hitzaldi batean oinarritzen da. Testua, beraz, alemanen areto bati zuzenduta dago, eta horregatik saiatzen da autorea Zuzenbide konparatuaren ikuspegia hartzen eta britainiar Zuzenbide administratiboa azaltzen, edo, gutxienez, Zuzenbide horretatik dagoen apurra.

Epaileek akatsik egin ote dezaketen galderari oso erantzun ironiko egokia emanez datorkigu autorea: eta, egingo balute ere, jabetuko al lirateke akademikoak? Ingeniozko erantzuna baino gehiago dago horren atzean: izan ere, ba al da ikuspegi pribilegiaturik, bai ezagutzaren teoriatik eta bai pragmatikatik okerrak eta akatsak detektatzeko? Noren ikuspegitik jakingo dugu akatsik ote dagoen: epailearenetik, Zuzenbidearenetik ala kritikoarenetik?

\* Joxerramon Bengoetxeak Filosofia eta Zuzenbidea ikasi zituen UNEDen eta Euskal Herriko Unibertsitatean, eta, bigarrenari dagokionez, 1990ean Edinburgoko Unibertsitatean egin zuen doktoradutza. EHUko Zuzenbidearen Filosofiako irakaslea da 1990. urtetik. 1993-1998 bosturtekoan Europar Komunitateen Justizia Auzitegiko letradu izan zen, eta ondoren EHUra itzuli zen. Eusko Jaurlaritzako Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuordea izan zen hiru urtez. Oxford Unibertsitateko *European and Comparative Law Institute*-n sabatiko txiki baten ondoren, Europar Komunitateetako Justizia Auzitegiko letradua da bigarren aldiz. Argitaratu dituen lan gehienak Zuzenbidearen teoria, Europar Zuzenbide Komunitarioa eta Filosofia Politikoiari buruzkoak dira. Eusko Ikaskuntzako kide da 1980. urtetik.

Aipatzekoa da autoreak sarrera moduan egiten duen azterketa, azalduz nola Britainia Handian Zuzenbide administratiboak garapen erlatiboa izan duen eta nola arlo publikoaren ekintza ohiko jurisdikzioan aztertu eta kontrolatu izan den. Azalpen hau beharrezkoa da europar kontinenteko edozein Zuzenbide sisteman, baina egileak azalpen hau ematen digu *Anisminic* aferaren garrantziaz jabe gaitezen. Horrekin batera, Administrazio zuzenbidearen antzeko zerbait sortu zen Britainia Handian —eta honetarako bai Ingalaterra-Galesko, bai Ipar Irlandako eta baita Eskoziako Zuzenbide sistemetan—. Jurista britainiarrak Europako beste herrietan horrelako azalpenak ematera behartuta daudela esan daiteke, alde batetik Zuzenbide konparatuaren ikuspegia eta pentsamolde joera kontinenteko jurista gehienek baino askoz ere barreiatuagoa daukatelako, eta bestalde beren Zuzenbideko kontzepzioak, batez ere jurista ingelesak, egiaz ezberdinak direlako.

*Anisminic* aferaren inguruan, beraz, bi erabaki ezberdin eta kontrajarri azaltzen dizkigu MacCormickek, eta *Common Law* sisteman azken urteotan eragin handienetakoa izan duten bi epaile ospetsuenak aztertzen ditu ondoren: Lord Diplock eta Lord Reid, afera berberaren inguruan.

Lord Diplock, bere teoria hau azaldu zuenean, *Court of Appeal*-eko epailea zen, nahiz eta gero Lord bilakatu, Lorden Ganberan. Bere teoria honi, *autoritatearen ikuspegia* edo *epaileen akatsgabatasunaren teoria* deitzen dio MacCormickek. Honen arabera, epai edo epailearen erabaki baten zuzentasuna erabakia ematen duenaren agintearen arabera da. Exekutiboa prest badago erabaki hori, eman duen organoak eman duelako, aplikatu eta errespetarazteko, orduan zuzena da. Epaile edo epaimahai batek esaten badu zerbait gertatu dela, hori egia ofiziala bilakatzen da; ez benetan gertatu delako, baizik eta ofizialki aintzatetsitako aginte batek gertatuzat jo duelako. Gertakari horren ondorio juridikoak epaileak edo auzitegiak ezarriko ditu, eta horiek goragoko beste auzitegi batek, Zuzenbidearen ikuspegitik, aldatzen ez dituen bitartean, ondorio edo epai zuzenak izango dira.

Lord Diplockek, neurri handi batean, Zuzenbide positiboaren tesia berresten du, baina errealismo juridikoak emandako ikuspegitik; alegia, eraginkortasunaren ikuspegitik: epaile batek emandako epaia ez bada helegite baten bitartez zuzentzen, epaia zuzena izango da, eta definizioz edo kontzeptualki ezin du akastuna izan, zuzentasuna hain zuzen ere epaia eman duenaren aginte instituzional eta ofizialean datzako. Zuzentasuna Auzitegi Gorenaren iritzia markatuko du.

Lord Reiden pentsamoldea, aginte ofizialarekin zerikusi esturik ez duen beste ikuspegi batean kokatzen da, berari zuzentasun materiala interesatzen baitzaio. Bere ustez, gauza bat da erabaki baten baliozkotasuna, goian ikusitakoa, eta beste bat, ez derrigorrez berdina, erabaki horren egokitasun edo zuzentasuna. Baliozkotasuna aztertu nahi bada, orduan Diplocken neurkina ongi dago (alegia, erabakigilearen agintea), baina erabakia zuzena ote den jakiteko, beste irizpideei begiratu behar zaie. Ikuspegi honek, epaileek akatsak egin ditzakete, nahiz eta beraien epaiak baliozkoak izan.

Baina bi ikuspegi hauek Zuzenbidearen bi teoria ezberdinekin lotzen ditu MacCormickek: positibismoa eta errealismo juridikoa, eta Zuzenbide naturala. Aipatzekoa da, ildo honetatik, gure egileak Kelsen bera Diplockekin lerrokatu izana, batez ere *Zuzenbidearen Teoria Hutsa*-ren azken argitalpenaz, Kelsenek hil baino lehenago Kalifornian argitara eman zuena, han garbi ikusten baita ezin dela frogatu epai bat akastuna denik, ez bada Zuzenbidearen barruko irizpide bat erabiltzen; hau da, baliozkotasun juridikoa bera, sistema juridiko bereko beste epai batek ekarria. Interesgarria da ere Reiden sokan Dworkin kokatzea. Izan ere, Dworkinen ustez Zuzenbidezko galderek erantzun zuzen bakar bat dute, epaileek edo juristek erantzunarekin batzuetan ez asmatu arren. Ikuspegi honetatik, epaileek akatsak egin ditzakete.

Ekarpena Zuzenbidearen irakaskuntzari buruzko bi kontzepzio ezberdinekin ere aritzen da, eta honetan datza, agian, lan honen balio handia: epaileen kontzepzioak Zuzenbidearen teoriaren historian oso errotuta dauden kontzepzioak direla, Zuzenbidea bera ulertzeko bi modu ezberdin, lehen hurbilketa batean bi modu uztarrezintzat jo daitezkeenak, baina azken batean bakoitzak egia txoren bat ere badakar. Epaileek ezin badute hutsik egin, Zuzenbidea irakasten duten juristek zer-nolako ikuspegia hartuko dute? Nola irakatsi behar dute Zuzenbidea? Aginte gehien daukaten auzitegien epaiak aztertuz, ala Zuzenbidearen printzipio eta muinak aztertuz?

Baina bi ikuspegiok badute epaileen lanaren eta kulturaren gain eraginik: Diplocken ikuspegitik, garrantzitsuena epaileen emaitza izango da. Epaiak ahalik eta argien eta motzera izan behar du, eta epaileek, erabakia emateko, batez ere aurreko auzitegiak zer-nolako erabakiak hartu dituzten aztertu beharko dute. Hein batean egiazko edo zuzentasunik demostratzerik ez dagoenez, epaiak aginteduna izan behar du, baina ez bereziki arrazoitua, eta epaileak izango dira azken hitza izango duten aktoreak.

Reiden tesiarekin, aldiz, zuzentasuna aurkitzeko ahalik eta iritzi gehien aztertu eta konparatu beharko dira, eta erabaki zuzena aurkitzen denean arrazoi zehatz eta osoak eman beharko dira egokitasunaz edo zuzentasunaz konbentzitzeko. Horrelako epaiak emateko gaitasun berezia behar da, eta epaileek ber-

tute bereziak izan beharko dituzte, zuzentasuna aurkitzeko gaitasuna, legegileari suposatzen zaizkion bertuteak. Diplocken ikuspegian, botereen banaketa zorrotza dago, eta epaileak agintea du Zuzenbidea zer den esateko, agintea duelako. Zuzenbidezko Estatuaren kontzepzio berezi bat dago honen atzetik: epailek diotena zuzena izateko, agintea duten pertsonak izan behar dute. Reiden ikuspegitik, aldiz, epaileak eta legegilea elkarlanean ari dira.

MacCormickek galdera soil batekin arlo eta arazo askori heltzen dio: Zuzenbidearen teoria nagusiak, Zuzenbide irakaskuntzaren zeregina, epailetzari buruzko kontzepzioak, Zuzenbidezko Estatuari buruzko pentsamoldeak, arrazonamendu praktikoaren zeregina Zuzenbidean eta bereziki epaigintzan, etab. MacCormickek arazo hauek guztiak arakatu ditu, eta oso modu interesgarri eta orijinalen biltzen ditu lan honetan, galdera soil bat ardatz harturik: akatsik bai?

Agintearen ikuspegia ukatu gabe, eta batez ere ikuspegi honek bermatzen duen egonkortasunaz baliatuz, MacCormickek Reiden alde egiten duela esan daiteke. Dworkinen erantzun zuzen bakarraren tesia besarkatu gabe, esan daiteke pentsalari eskoziarrari gehien interesatzen zaiona arrazonamenduaren alderdia dela: epaiaren zuzentasunaren aldeko arrazoiak eman behar dira, eta honek diskurtsoaren dinamika berezi bat sortzen du, argumentazioaren teoria. Eta filosofia germaniar jakin batekin elkartzen da berriz; alegia, Habermas eta Alexyrenarekin. Epaiak bidezkotu beharrak ondorio garrantzitsuak dakartza: (i) aginte hutsa ez da nahikoa; (ii) epaiaren aldeko arrazoi onak, edo konbentzigarriak, koherenteak, konsistenteak eman behar dira; (iii) juristek ikuspegi kritikoa ere hartzen dute; eta (iv) arrazoi praktikoaren arloan kokatzen da epaiak berak egiten duen zuzentasunaren aldarrikapena; hots, erabakia, Zuzenbidea oinarritzat hartuta, zuzena dela. MacCormicken lan guztia tradizio honetan kokatzen da, arrazoia boterearen gainetik jartzen duen eskoziar "argitzearen" edo *Enlightenment* tradizioan hain zuzen ere.